# Xedapen Orokorrak

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

**1993**

AGINDUA, 2010eko martxoaren 22koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialeko modalitatean ematea arautzen duena.

Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuak, Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duenak, 8. artikuluan zehazten du baimena duten ikastetxeek heziketa-zikloen eskaintza partziala egin ahal izango dutela, eta eskaintza hori helduentzat soilik izango dela. Eskaintza partzial horrek heziketa-zikloaren lanbide-modulu guztiak hartu ahal izango ditu, eta ikaslea lanbide-moduluka matrikulatu ahal izango da, dekretu horren 29. artikuluan adierazten den bezala.

Era berean, 32/2008 Dekretuaren 25.4 artikuluan zehazten da lanbide-modulu bat edo zenbait gainditzen dituztenek jasoko dutela ikasketa-ziurtagiria, eta ziurtagiri horrek, ikasketa-ondorioez gain, eskuratutako gaitasunak pilatzeko egiaztatze partzialaren ondorioak ere izango dituela Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazionalari dagokionez.

Etengabeko prestakuntza sustatzeko asmoz, 32/2008 Dekretuaren 5.5 artikuluan ezartzen da lanbide-moduluak prestakuntza-unitate laburragoetan ematea arautuko dela. Unitate horietan ziurtagiriak ere emango dira, eta prestakuntza-unitate guztiak gainditzen dituenari lanbide-moduluaren ziurtagiria emango zaio.

Agindu honekin pertsona helduei euren kualifikazio-maila hobetzeko aukera eman nahi zaie, Lanbide Heziketako heziketa-zikloek eskaintzen dituzten lanbide-gaitasunei dagokienez. Horretarako, prestakuntza-eskaintza malguagoa egiten da, euren premiei egokitua.

Azkenik, bizi dugun prozesu ekonomikoak handitutako Lanbide Heziketako prestakuntza-eskariak direla-eta, beharrezkoa da xedapen iragankor bat gehitzea, 2010-2011 ikasturterako lehen deialdi orokorra egin aurretik eskaintza honen barruan heziketa-ziklo horiek emateko baimena duten ikastetxeek garatzen dituzten jarduerak hartu ahal izateko, agindu honetan xedatutakoari jarraiki.

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

**1993**

ORDEN de 22 de marzo de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula la impartición de ciclos formativos de Formación Profesional en la modalidad de oferta parcial.

El Decreto 32/2008, de 26 de febrero, por el que se establece la ordenación general de la formación profesional del sistema educativo, en su artículo 8, determina que los centros debidamente autorizados podrán ofertar de forma parcial los ciclos formativos, quedando reservada esta oferta a las personas adultas. Esta oferta parcial podrá abarcar a todos los módulos profesionales del ciclo formativo, pudiéndose matricular el alumno/a por módulos profesionales, tal y como se señala en el artículo 29 del citado Decreto.

Asimismo, en el artículo 25.4 del mencionado Decreto 32/2008 se determina que la superación de uno o varios módulos profesionales dará lugar a la correspondiente certificación académica que tendrá, además de los efectos académicos, efectos de acreditación parcial acumulable de las competencias adquiridas en relación con el Sistema Nacional de Cualificaciones y Formación Profesional.

Con el fin de promover la formación a lo largo de la vida, en el artículo 5.5 del citado Decreto 32/2008 se establece que se regulará la organización de la impartición de los módulos profesionales en unidades formativas de menor duración. Estas unidades podrán ser certificables y la superación de todas las unidades formativas dará derecho a la certificación del módulo profesional.

Con la presente Orden se trata de posibilitar a las personas adultas que mejoren su nivel de cualificación, en las competencias profesionales a las que atienden los diferentes Ciclos Formativos de Formación Profesional, a través de una oferta formativa más flexible y adaptada a sus necesidades.

Finalmente, las demandas formativas de Formación Profesional incrementadas por el proceso económico en que nos encontramos hacen necesario introducir una Disposición transitoria que permita acoger dentro de esta oferta aquellas actividades que los centros autorizados para impartir los ciclos formativos correspondientes desarrollen antes de que se produzca la primera convocatoria general para el curso 2010-2011 de acuerdo con lo establecido en la presente Orden.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBATZI DUT:

***1. artikulua.***– Xedea.

Agindu honen xedea Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialeko modalitatean eman, ebaluatu eta egiaztatzea arautzea da, horiek lanbide-moduluka eta/edo unitate laburragoetan eskaini eta egin ahal izateko.

***2. artikulua.***– Kredituak.

Metatutako eskaintza partzialeko modalitateko lanbide-modulua osatzen duten prestakuntza-unitateak dira kredituak. Unitate guztiak egin behar dira dagokion lanbide-modulua ebaluatu eta kalifikatu ahal izateko.

***3. artikulua.***– Hartzaileak.

Eskaintza partzial honen hartzaileak pertsona helduak, 18 urtetik gorakoak edo adin hori ikasturtea hasten den urtean egiten dutenak izango dira, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 66.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Baina lege horren 67.1 artikuluaren arabera, salbuespen gisa, 16 urtetik gorako pertsonek ere egin ditzakete ikasketa horiek, horiek egitea eskatu eta euren lan-kontratuak ikastetxera erregimen arruntean joaten uzten ez badie.

***4. artikulua.***– Eskaintza honetan sartzeko baldintzak.

Eskaintza honetako edozein modalitatera sartzeko, pertsona helduek eskatutako titulazioa eduki, edota heziketa-zikloetan sartzeko proba gainditu beharko dute, ikasi nahi d(ir)en modulua edo moduluak erdi-mailako edo goi-mailako ziklo batekoak diren.

***5. artikulua.***– Eskaintzaren modalitateak.

Eskaintza partziala modalitate hauetan egin daiteke:

– Orokorra: lanbide-modulu osoa eskainiko da, eta irakaslea izango da sekuentziazioaren eta programazioaren arduraduna.

– Metatua: kredituka sekuentziatuta egingo da, eta gainditu diren kredituak onartu ahal izango dira. Modalitate honi heltzen dionak Etengabeko Ikaskuntza eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzak adierazitako programazioaren sekuentziazioari jarraitzeko konpromisoa hartuko du.

***6. artikulua.***– Ikastetxe baimenduak.

Lanbide Heziketako heziketa-zikloak edozein modalitatetan eman ahal izango dituzte heziketa-ziklo horiek eskaintza osoan emateko baimena duten

Por todo ello, en su virtud

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Objeto.

La presente Orden tiene por objeto regular la impartición, evaluación y certificación de ciclos formativos de Formación Profesional en la modalidad de oferta parcial, de manera que puedan ofertarse y cursarse por módulos profesionales y/o en unidades de menor duración.

***Artículo 2.***– Créditos.

Se denominan créditos a las unidades formativas en que se divide el módulo profesional en la modalidad de oferta parcial acumulativa. Tienen que cursarse todos ellos para poder ser evaluado y calificado el módulo profesional correspondiente.

***Artículo 3.***– Personas destinatarias.

Las personas destinatarias de esta oferta parcial serán personas adultas, mayores de 18 años o que cumplan esa edad en el año en que comienza el curso, de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.1 de la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo de Educación.

No obstante, de acuerdo con el artículo 67.1 de esa misma Ley, excepcionalmente, podrán cursar estas enseñanzas las personas mayores de 16 años que lo soliciten y que tengan un contrato laboral que no les permita acudir al centro en régimen ordinario o sean deportistas de alto rendimiento.

***Artículo 4.***– Condiciones de acceso a esta oferta.

Para acceder a cualquiera de las modalidades de esta oferta parcial las personas adultas deberán estar en posesión de la titulación requerida o bien superar la correspondiente prueba de acceso a ciclos formativos, dependiendo de que el módulo o los módulos que desee cursar pertenezcan a un ciclo formativo de grado medio o de grado superior.

***Artículo 5.***– Modalidades de la oferta.

La oferta parcial puede realizarse en las siguientes modalidades:

– Global: se ofertará todo el módulo profesional en su totalidad siendo el profesor/a el responsable de la secuenciación de la programación.

– Acumulativa: se realizará de forma secuencializada por créditos, pudiendo reconocerse los créditos que se hayan superado. Quien se acoja a esta modalidad se comprometerá a seguir la secuenciación de la programación indicada por La Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente.

***Artículo 6.***– Centros autorizados.

Podrán impartir la oferta parcial de los ciclos formativos de Formación Profesional en cualquiera de sus modalidades aquellos centros educativos radica-

EAEko ikastetxeek -publikoek zein pribatuek-, betiere dagozkien deialdietako baldintzak betetzen badira.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztuko du ikastetxe publikoek eta pribatuek, horretarako egiten d(ir)en deialdiak edo deialdiek zehazten duten aldian, ezarri ahal izango dituzten ikastetxeak eta lanbide-moduluak.

***7. artikulua.***– Eskolak ematea eta finantzaketa.

1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskaintza hau egiteko egoki deritzon deialdiak egin ahal izango ditu, eta ikasturteko gutxienez deialdi bat egin beharko du.

2.– Ikastetxe pribatuentzako deialdien kasuan, eskolak emateko baldintzez gain, dagokion finantzaketa lortzeko baldintzak ere arautuko dira.

***8. artikulua.***– Izena ematea eta matrikulatzea.

1.– Matrikulatze-prozesua bi fasetan egingo da eskaintza honetan: lehenik izena ematea, eta bigarrenik, matrikula formalizatzea. Nolanahi ere, ikaslea ez da matrikulatuta egongo bigarren fasea gauzatu arte.

2.– Etengabeko Ikaskuntza eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzak erabakiko du zer ikastetxek matrikula ditzaketen ikasleak dagokion aldirako, eta zer epetan egin beharko duten. Matrikula lanbide-moduluka egingo da.

3.– Eskaintza partzial honetako modalitate guztietan, matrikulazioa egin dezaketen ikastetxeek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako aplikazio informatikoan grabatu beharko dituzte ikasleen matrikulazioari buruzko datuak, Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak horretarako zehazten dituen epeetan eta moduan.

4.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak finantzatutako moduluetan, izena emateko edo matrikulatzeko eskaerek modulu bakoitzerako eskainitako gehienezko plaza kopurua gainditzen badute, ikastetxeek eskaeren hautaketa bat egingo dute, eta ikasle onartu eta baztertuen zerrenda bat argitaratuko dute, lehentasun-irizpide hauen arabera:

a) Lehendik heziketa-zikloan matrikulatutako pertsonak, zikloa osatzeko egin nahi duten modulua baino geratzen ez zaienak.

b) Prestakuntza-eskaintzaren zikloarekin lotutako arloan lanean ari diren edo langabezian dauden langileak.

c) Ziklo bereko prestakuntza-modulu edo gaitasun-unitateren bat gaindituta duten pertsonak.

d) Eskatzailea adin nagusiagokoa izatea.

dos en la CAPV, públicos o privados que estén autorizados a impartir dichos ciclos formativos en oferta completa, siempre que cumplan con los requisitos de las correspondientes convocatorias.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación determinará los centros y módulos profesionales que los centros públicos y privados podrán implantar en el periodo al que se refiera la convocatoria o convocatorias que al efecto se realicen.

***Artículo 7.***– Impartición y financiación.

1.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación, podrá llevar a cabo las convocatorias que considere oportunas para la impartición de esta oferta, debiendo realizar, al menos, una por curso académico.

2.– En el caso de las convocatorias dirigidas a centros privados, además de los requisitos para la impartición, se regularán las condiciones para obtener la correspondiente financiación.

***Artículo 8.***– Inscripción y matriculación.

1.– El proceso de matriculación en esta oferta se realizará en dos fases: una primera de inscripción y una segunda fase de formalización de la matrícula. En cualquier caso el alumno o alumna no quedará matriculado hasta que realice la segunda fase.

2.– La Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente determinará los centros que pueden matricular alumnos y alumnas para el periodo de que se trate y en qué plazos deben hacerlo. La matrícula se realizará por módulos profesionales.

3.– En todas las modalidades de esta oferta parcial, los centros que puedan realizar la matriculación deberán grabar en la aplicación informática específica establecida por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación los datos correspondientes a la matriculación del alumnado, en los plazos y la forma que al efecto determine la Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente.

4.– En los módulos financiados por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, si las solicitudes de inscripción o matriculación superaran el número máximo de plazas ofertadas para cada módulo, los centros realizarán una selección de las solicitudes y publicarán la lista de alumnos y alumnas admitidas y excluidas, con arreglo a los siguientes criterios de prioridad:

a) Personas matriculadas anteriormente en el ciclo formativo y a las que sólo les falta el módulo que desean cursar para completar el ciclo.

b) Trabajadores y trabajadoras empleados o en desempleo del sector relacionado con el ciclo al que pertenece la oferta formativa.

c) Personas que tengan superado algún módulo formativo o unidad de competencia del mismo ciclo.

d) Mayor edad de la persona solicitante.

***9. artikulua.***– Ikasle-taldeak.

1.– Eskaintza hau egiteko deialdietan, ikasleak zer lanbide-modulutan matrikula daitezkeen eta taldeek finantzatuak izateko izan behar dituzten ezaugarriak adieraziko dira.

2.– Ikastetxeek eskaintza partziala eskatu duten ikasleak eskaintza osoko moduluetan sartu ahal izango dituzte, ahal baldin bada, eta ezingo dira eskaintza osoko ikasletzat hartu.

***10. artikulua.***– Irakasleak.

1.– Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra arautzen duen dekretuaren arabera, lanbide-modulu bakoitza irakasle bakar batek emango du oro har.

2.– Irakasle horrek dekretu horren tutoretzakoak diren funtzioak beteko ditu gainera.

***11. artikulua.***– Eskaintza presentziala eta programazioa.

1.– Lanbide-modulua gehienez bi aldiz egin ahal izango da modu presentzialean.

2.– Programazioari, horren garapenari eta ebaluazio-sistemari dagokienez, hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra arautzen duen dekretuan xedatutakoari eta lanbide-moduluaren tituluaren dekretuan xedatutakoari helduko zaie. Curriculuma eta modulu bakoitzaren ordu-iraupena heziketa-ziklo hori Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen dekretuan ezarritakoak izango dira.

3.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak metatutako eskaintza partzialerako kredituetan sekuentziatuko du curriculuma, hala badagokio kredituak zer ordenatan egin behar diren adierazita.

4.– Eskaintza partzialari dagozkion lanbide-moduluak emateko ordutegia ikasleen premietara egokituko da.

***12. artikulua.***– Metodologia eta ebaluazio-prozesua.

1.– Moduluak emateko ezartzen diren tratamendu metodologikoak eta ikasi eta irakasteko prozesuak pertsona helduen ezaugarrietara egokituko dira, eta lanbide-modulurako ezarritako ikaskuntza-emaitzak bermatzen dituzten ebaluazio-ekintza guztiak diseinatuko dira.

2.– Ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioa jarraitua izango da, jarduera sistematiko eta etengabekoa, ikasi eta irakasteko prozesuan bertan integratua, eta lanbide-modulu hori ematen ari den irakasleak egingo du.

***Artículo 9.***– Grupos de alumnos y alumnas.

1.– Las convocatorias para la impartición de esta oferta señalarán los módulos profesionales en que se pueden matricular y las características que deben tener los grupos para poder ser financiados.

2.– Los centros podrán introducir alumnos y alumnas que hayan solicitado la oferta parcial en módulos de la oferta completa, siempre que sea posible, sin que puedan contabilizarse como alumnos o alumnas de oferta completa.

***Artículo 10.***– Profesorado.

1.– De acuerdo con el Decreto por el que se establece la ordenación general de la formación profesional del sistema educativo, cada módulo profesional será impartido con carácter general por un sólo profesor o profesora.

2.– Este profesor-a desempeñará además las funciones propias de la tutoría del citado Decreto.

***Artículo 11.***– Oferta presencial y programación.

1.– El módulo profesional podrá cursarse de manera presencial un máximo de dos veces.

2.– En cuanto a la programación, su desarrollo y el sistema de evaluación se estará a lo dispuesto para la oferta completa tanto en el Decreto de ordenación general de la formación profesional en el sistema educativo como a lo dispuesto en el Decreto del Título al que corresponde el módulo profesional. El currículo y la duración horaria de cada módulo serán los establecidos en el Decreto que establece la implantación del Ciclo Formativo correspondiente en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación secuenciará el currículo en créditos para la oferta parcial acumulativa, indicando, en su caso, el orden en que deben cursarse los créditos.

4.– El horario en el que se impartan los módulos profesionales correspondientes a la oferta parcial se adecuará a las necesidades del alumnado.

***Artículo 12.***– Metodología y proceso de evaluación.

1.– El tratamiento metodológico y el proceso de enseñanza-aprendizaje que se establezcan para la impartición de los módulos deberán ser apropiados a las características de las personas adultas y se diseñarán las acciones evaluativas precisas que garanticen los resultados de aprendizaje establecidos para el módulo profesional.

2.– La evaluación del aprendizaje de los y las alumnas será continua, constituyendo una actividad sistemática y permanente, integrada en el propio proceso de enseñanza y aprendizaje y se realizará por el profesor-a que imparta el módulo profesional del que se trate.

3.– Metatutako eskaintza partzialean, ebaluazioa kredituka egingo da, eta ezaugarri hori eta ebaluazio- eta kalifikazio-irizpideak dagokion lanbide-moduluaren programazioan agertuko dira.

4.– Ikasleen etengabeko ebaluazio-prozesua aplikatzeak ikasle horiek eskoletara eta dagokion lanbide-modulurako programatutako jardueretara modu erregularrean joatea eskatzen du. Nolanahi ere, asistentziari dagokionez, Lanbide Heziketako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen dituen dekretuan xedatutakoari helduko zaio.

5.– Ikasleek euren eskola-errendimendua objektibotasun osoko irizpideen arabera ebaluatua izateko duten eskubidea bermatzearren, dagokion modulua ematen duen irakasleak ondorengoak jakinaraziko ditu, hartutako ebaluazio-prozesuaren arabera:

– Egingo diren ebaluazio-egunak eta -saioak.

– Dagokion moduluan kalifikazio positiboa lortzeko behar diren edukiak eta ikaskuntza-emaitzak.

– Ezartzen diren ebaluazio-jarduerak, -tresnak eta -uneak.

***13. artikulua.***– Ebaluazio-deialdiak.

1.– Lanbide-modulu bakoitza lau deialditan ebaluatu ahal izango da, baina Lantokiko Prestakuntzakoa eta Proiektukoa bitan egingo dira.

2.– Deialdiak lanbide-moduluaren ordutegi lektiboaz kanpo egingo dira, eta egutegia eta ordutegia nahikoa aurrerapenez adieraziko dira, ikasleek prestatzeko elementuak izan ditzaten eta kalifikazio positiboa lor dezaten. Hirugarren eta laugarren deialdietan, lanbide-modulu osoa kontuan hartuta ebaluatuko dira ikasleak.

3.– Bigarren deialdia lehenengoa egin eta gehienez bi hilabeteko epean egin beharko da.

4.– Eskaintza partzialeko modalitate hauek egiten dituzten pertsonek aparteko deialdi bat eskatu ahal izango dute, eskaintza osoa egiten duten pertsonen baldintza berberekin.

***14. artikulua.***– Ebaluazio-saioak.

1.– Etengabeko ebaluazio-saioak. Eskaintza partzial orokorrean egiten diren etengabeko ebaluazio-saioak modulua eskaintza osoko modalitatean emango balitz bezala egingo dira. Metatutako eskaintza partzialean, kredituak ebaluatuko dira saio horietan, eta I. eranskinean agertzen den metatutako ebaluazio partzialaren akta beteko da. Kredituen kalifikazioak zenbakizkoak izango dira, 1etik 10era.

3.– En la oferta parcial acumulativa la evaluación se realizará por créditos, reflejándose esta circunstancia así como los criterios de evaluación y calificación en la programación del módulo profesional correspondiente.

4.– La aplicación del proceso de evaluación continua del alumnado requiere su asistencia regular a las clases y a las actividades programadas para el módulo profesional correspondiente. En cualquier caso, con respecto a la asistencia se estará a lo que señala la Orden por la que se regula la implantación y evaluación de los ciclos formativos de formación profesional.

5.– Con el fin de garantizar el derecho que asiste a los alumnos y alumnas a que su rendimiento escolar sea evaluado de acuerdo con los criterios de plena objetividad, el profesor o profesora responsable de la impartición del módulo correspondiente dará a conocer, de acuerdo con el proceso de evaluación adoptado:

– Fechas y sesiones de evaluación que se efectuarán.

– Contenidos y resultados de aprendizaje necesarios para lograr una calificación positiva en el módulo correspondiente.

– Actividades, instrumentos y momentos de evaluación que se establecen.

***Artículo 13.***– Convocatorias de evaluación.

1.– Cada módulo profesional podrá ser objeto de evaluación en cuatro convocatorias, excepto el de Formación en Centros de Trabajo y el de Proyecto que lo serán en dos.

2.– Las convocatorias se realizarán fuera del horario lectivo del módulo profesional y con suficiente antelación se indicará calendario y horario de forma que el alumnado disponga de elementos para su preparación y pueda obtener una calificación positiva. En la tercera y cuarta convocatorias los alumnos y alumnas serán evaluados del módulo profesional en su conjunto.

3.– La segunda convocatoria deberá realizarse en un plazo que no supere los dos meses desde la realización de la primera.

4.– Las personas que cursen estas modalidades de oferta parcial podrán solicitar una convocatoria extraordinaria en las mismas condiciones que las personas que cursan la oferta completa.

***Artículo 14.***– Sesiones de evaluación.

1.– Sesiones de evaluación continua. En la oferta parcial global se realizarán las sesiones de evaluación continua como si el módulo se impartiera en la modalidad de oferta completa. En la oferta parcial acumulativa, se evaluarán en estas sesiones los créditos y se cumplimentara el acta de evaluación parcial acumulativa que aparece en el anexo I. Las calificaciones de los créditos serán numéricas de 1 a 10.

2.– Azken ebaluazioko saioak. Azken ebaluazioko saioetan lanbide-moduluari dagokion kalifikazioa erabakiko da. Kalifikazioa zenbakizkoa izango da, 1etik 10era.

Lehenengo azken saioan, eskaintza osoko modulu bat izango balitz bezala jardungo da eskaintza orokorrean; metatutako eskaintzan, berriz, irakasleak, ikasleak kreditu guztiak gainditu baditu, lanbide-modulua kalifikatuko du, dagozkion kredituetan lortutako kalifikazioak kontuan hartuta. Kredituren bat gainditzen ez bada, kalifikazioa negatiboa izango da, eta kreditu horien kalifikazioak akta osagarrian jasoko dira.

Bigarren azken ebaluazioan, lehenengoan ebaluazio positiboa izan ez duten ikasleak baino ez dira agertuko. Deialdi horretara joaten ez direnek EA (ez aurkeztua) kalifikazioa izango dute. Metatutako eskaintzan, ebaluazioa gainditu gabeko kredituei buruzkoa izango da soilik. Metatutako eskaintzan saioa amaitutakoan, deialdi horretan kreditu guztiak gainditu ez badira, dagokion akta osagarria egingo da, lehenengo saioan egin zen bezalaxe, eta atal berezian, bigarren azken ebaluazioa dela jasoko da.

Bi modalitateetako 3. eta 4. ebaluazioetan modulu osoa ebaluatuko da, eta ikastetxeek eskaintza osoko lehen edo bigarren mailetako azken deialdietara deitu ahal izango dituzte ikasleak, hots, modulua dagoen zikloa eskaintza osoan ematen ez bada, ikastetxeak Lanbide Heziketako eskaintza osoko zikloetan egiten duen edozein deialditara.

3.– Azken ebaluazioko aktak. Azken saio bakoitzean akta bat egingo da, heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen dituen dekretuan agertzen den ereduaren arabera.

Metatutako eskaintzako modalitatean, lehenengo eta bigarren azken saioetan akta osagarria egingo da modulu osoa gainditu ez dutenen kreditu gaindituekin. Akta osagarri hori II. eranskinean agertzen den ereduaren arabera egingo da.

Azken aktak, erantsitako akta osagarriekin batera, akta ofizialtzat joko dira, eta ezingo da argudiatu kreditu gaindituak izatea, metatutako ebaluazio partzialaren aktan horrela agertzen dela medio.

4.– Ikastetxeak deialdi guztietako emaitzen berri emango die ikasleei, eta dagozkien agirietan jasoko ditu.

2.– Sesiones de evaluación final. En las sesiones de evaluación final se decidirá la calificación correspondiente al módulo profesional. La calificación será numérica de 1 a 10.

En la primera sesión final, en la oferta global se procederá como si se tratara de un módulo de la oferta completa y en la oferta acumulativa, el profesor/a, en el caso de que el alumno o alumna haya superado todos los créditos, procederá a calificar el módulo profesional, teniendo presentes las calificaciones obtenidas en los créditos respectivos. En el caso, de no haber superado algún crédito la calificación será negativa y las calificaciones de los créditos respectivos se trasladarán al acta complementaria.

En la segunda evaluación final aparecerán solamente aquellos alumnos o alumnas que no han sido evaluados positivamente en la primera. Los que no concurran a esta convocatoria se les calificará con NP (no presentados). La evaluación en la oferta acumulativa se realizará sólo sobre los créditos no superados. En la oferta acumulativa, al finalizar la sesión se levantará el acta complementaria correspondiente, tal y como se procedió en la primera sesión, para aquellos casos que no hubieran superado todos los créditos en esta convocatoria, haciendo constar con apartado correspondiente que se trata la segunda evaluación final.

Para las 3.ª y 4.ª convocatorias en ambas modalidades la evaluación se realizará de todo el módulo en su conjunto, pudiendo convocar los centros a estos alumnos o alumnas a cualesquiera de las convocatorias finales de primero o segundo de los cursos de oferta completa o, en el caso de que el ciclo en que este inserto el módulo no se imparta en oferta completa, en cualquiera de las convocatoria que el centro realice sobre ciclos de formación profesional en oferta completa.

3.– Actas de evaluación final. De cada sesión final se levantará un acta de acuerdo al modelo que aparece en la Orden que regula la implantación y evaluación de los ciclos formativos.

En la modalidad de oferta acumulativa, en la primera y segunda sesiones finales se levantará un acta complementaria con los créditos superados de quienes no hayan superado la totalidad del módulo. Esta acta complementaria se ajustará al modelo que aparece en el anexo II.

Las actas finales, con las actas complementarias anexas, serán consideradas como las actas oficiales no pudiéndose esgrimir que se tienen superados créditos porque así apareciese en el acta de evaluación parcial acumulativa.

4.– De los resultados de todas las convocatorias, además de consignarlos en la documentación correspondiente, el centro deberá informar por escrito al alumnado.

***15. artikulua.***– Kalifikazioak.

Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra arautzen duen dekretuan ezarritakoaren arabera, lanbide-modulu baten kalifikazioa zenbakizkoa izango da modalitate guztietan, batetik hamarrera bitarte, hamartarrik gabe. Bosteko edo hortik gorako kalifikazioak positibotzat jotzen dira. Bigarren, hirugarren eta laugarren deialdietara aurkezten ez direnei EA (ez aurkeztua) kalifikazioa jarriko zaie.

***16. artikulua.***– Ebaluazio-prozesuko agiriak.

Modalitate honetako ebaluazio-prozesuko agirien forma eta gordetzeko modua Lanbide Heziketarako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen dituen aginduan ezarritakoak izango dira.

***17. artikulua.***– Espedientea lekuz aldatzea.

Ikasle baten espedientea lekuz aldatuko da, heziketa-ziklo bateko modulu bat edo batzuk egiteko espedientea ikastetxe batean hasi eta gero, ikasle batek modulu hori edo horiek edo beste modulu bat espedientea hasi zen ikastetxea ez den beste batean egin nahi d(it)uenean.

Kasu horietan, eskaintza osoko modalitateari aplikatzeko den araudia hartuko da kontuan.

***18. artikulua.***– Baliozkotzeak, exentzioak eta egiaztapena.

1.– Baliozkotzeak eta exentzioak Lanbide Heziketarako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen dituen aginduan eta dagozkien tituluen dekretuetan ezarritakora egokituko dira.

2.– Metatutako eskaintza partzialean, bigarren azken ebaluazioa egin ondoren, modulua egin den ikastetxeko zuzendariak gainditu gabeko lanbide-modulu bakoitzeko kreditu gaindituak egiaztatuko ditu, III. eranskinean agertzen den agiriaren ereduaren arabera. Kredituen egiaztapen horrek ikasleak modulua modu presentzialean edo urrutitik egitea erabakitzen badu balio izango du; gainera, balioa izaten jarraituko du, ikasleak modulu osoa 3. eta 4. deialdietan gainditzen ez badu ere.

3.– Kredituen egiaztapenaren kopia bat eskatzen duen ikasleari igorriko zaio, eta ziurtagiria edo ziurtagiriak dituen jatorrizkoa ikaslearen espedientean artxibatuko da. Ikasle horiek ez dute metatutako eskaintzako modalitatean edo urrutiko prestakuntza telematikoan egiaztatutako kreditu horiek egin beharrik izango.

***Artículo 15.***– Calificaciones.

De acuerdo con lo establecido en el Decreto por el que se establece la ordenación general de la formación profesional del sistema educativo, la calificación de un módulo profesional en todas modalidades deberá ser numérica, entre uno y diez, sin decimales. Se consideran positivas las calificaciones iguales o superiores a cinco. A quienes no se presenten a la segunda, tercera, cuarta convocatorias se les calificará con NP (No Presentado).

***Artículo 16.***– Documentos del proceso de evaluación.

Los documentos correspondientes al proceso de evaluación para esta modalidad, en cuanto a la forma y su custodia, serán los establecidos la Orden que regula la implantación y evaluación de los ciclos formativos de formación profesional.

***Artículo 17.***– Traslado de expediente.

Procederá el traslado de expediente de un alumno o alumna cuando, una vez iniciado el expediente en un centro educativo para cursar un(os) módulo(s) correspondiente(s) a un ciclo formativo este alumno o alumna desee cursar ese(os) mismo(s) módulo(s) u otro módulo(s) de ese mismo ciclo formativo en otro centro educativo distinto a aquel en el que se inició el expediente.

En estos casos, se observará la normativa que sea de aplicación para la modalidad de oferta completa.

***Artículo 18.***– Convalidaciones, exenciones y reconocimiento.

1.– Las convalidaciones y exenciones se ajustarán a lo establecido en el Decreto que regula la implantación y evaluación de los ciclos formativos de formación profesional y en los Decretos de los Títulos correspondientes.

2.– En el caso de la oferta parcial acumulativa, después de celebrada la segunda evaluación final el Director o la Directora del centro en el que se haya cursado el módulo, reconocerá los créditos aprobados de cada módulo profesional no superado, mediante el documento cuyo modelo aparece en el anexo III. Este reconocimiento de créditos servirá si el alumno o alumna optase por cursar por segunda vez de forma presencial el módulo o si decidiese hacerlo a distancia; también seguirá teniendo valor aunque el alumno o alumna no superase la totalidad del módulo ni en la 3.ª ni en la 4.ª convocatorias.

3.– Una copia del reconocimiento de los créditos se trasladará al alumno o alumna que lo haya solicitado y el original con el certificado o certificados justificativos se archivará en el expediente del alumno o de la alumna. Estos alumnos o alumnas quedarán liberados de cursar dichos créditos reconocidos en la modalidad de oferta acumulativa o en la de formación a distancia telemática.

***19. artikulua.***– Lantokiko Prestakuntzako eta Proiektuko moduluak.

1.– Lantokiko Prestakuntzako eta Proiektuko moduluak bi alditan egin ahal izango dira eskaintza partzialean: arrunta eta apartekoa.

– Aldi arrunta otsailaren eta ekainaren artekoa izango da, dagokion zikloko eskaintza osoko ikasleak LPko eta Proiektuko moduluak egiten ari diren bitartean. Aldi horretarako matrikula urtarrilean zabalduko da, eta ebaluazioa eskaintza osoko ikasleekin egingo da.

– Aparteko aldia ikasturte-hasieratik otsailera arte egingo da. Kasu horretan, matrikulazioa deialdi orokorreko eskaintza partzialeko gainerako ikasleekin egingo da, eta ebaluazioa, eskaintza osoko ikasleek LPko modulua egin aurretik ikastetxeak egingo duen ebaluazio-saioan.

2.– Eskaintza partzialeko Proiektuko moduluak ez du ikastetxera modu erregularrean joatera behartzen, eta modulua tutorepetzen duen irakasleak adierazten dituen jarduera, ariketa eta proben bidez garatuko da.

3.– LPko moduluaren zati bat profesionaltasun-ziurtagiri bati dagozkion lanez kanpoko praktiken bidez egiaztatu ahal izango da, profesionaltasun-ziurtagiri hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak heziketa-zikloak emateko baimendutako ikastetxe batean egiten denean. Kasu horretan, ikastetxeko zuzendariak ziurtagirian (IV. eranskina) jasotako ordu kopurua egiaztatuko du, eta jatorrizkoa ikaslearen espedientean artxibatu eta interesdunari kopia eskuetsi bat igorriko dio. Agiri hori ziurtagiriarekin lotutako heziketa-ziklo bateko LP egiteko matrikulatzen denean aurkeztuko du ikasleak, eta bertan agertzen diren LPko orduak ez ditu egin beharko.

***20. artikulua.***– Matrikula deuseztatzea eta deialdiari uko egitea.

Egiten ari den moduluaren iraupenaren % 80 egin aurretik deuseztatuko da matrikula, eta deialdiari uko egitea modulu horren ebaluazio-deialdiaren eguna baino 7 egun lehenago egingo da.

Deuseztatzearen eta uko egitearen eraginak Lanbide Heziketarako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen dituen aginduan jasotakoak izango dira.

XEDAPEN IRAGANKORRA

***Lehenengoa.***– Eskaintza osoko heziketa-ziklo baimenduak dituzten ikastetxe guztiek gaitasun-unitateari lotutako lanbide-modulu bat edo bi eta

***Artículo 19.***– Los módulos de Formación en Centros de trabajo y el de Proyecto.

1.– Los módulos de Formación en Centros de Trabajo y el de Proyecto se podrán cursar en oferta parcial en dos periodos: ordinario y extraordinario.

– El periodo ordinario será entre los meses de febrero y junio coincidiendo con la realización de los módulos de FCT y de Proyecto de los alumnos y alumnas de oferta completa del ciclo correspondiente. La matrícula para este periodo se abrirá en el mes de enero y la evaluación se realizará con el alumnado de oferta completa.

– El periodo extraordinario se llevará a cabo desde el comienzo del curso hasta el mes de febrero. En este caso la matriculación se realizará con el resto del alumnado de oferta parcial de la convocatoria general y la evaluación en la sesión de evaluación que el centro efectuará antes de la realización del módulo de FCT del alumnado de oferta completa.

2.– El módulo de Proyecto en oferta parcial no precisa de asistencia regular al centro y se desarrollará con las actividades, ejercicios y pruebas que señale el profesor-a que tutorice el módulo.

3.– Parte del módulo de FCT podrá reconocerse también, por las prácticas no laborales correspondientes a un certificado de profesionalidad, cuando este certificado de profesionalidad se haya realizado en un centro autorizado para impartir ciclos formativos por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación. En este caso, el Director o la Directora del centro procederá a reconocer el número de horas correspondientes que figuren en el certificado (anexo IV), archivando el original en el expediente del alumno o alumna y remitiendo una copia autentificada al interesado. Este documento será presentado por el alumno o alumna en el momento en que se matricule para realizar la FCT de un ciclo formativo con el que esté relacionado el certificado, no teniendo que realizar las horas de FCT que allí aparezcan.

***Artículo 20.***– Anulación de matrícula y renuncia a la convocatoria.

La anulación de matrícula se realizará antes de cubrir el 80% de la duración del módulo que se esté realizando y la renuncia a la convocatoria con una antelación de 7 días a la fecha de la convocatoria de evaluación de ese módulo.

Los efectos de la anulación y la renuncia serán los que recoge la Orden que regula la implantación y evaluación de los ciclos de Formación Profesional.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

***Primera.***– Todos los centros que tengan autorizados ciclos formativos en oferta completa podrán solicitar la impartición de uno o dos módulos pro-

lantokiko prestakuntzakoa eskatu ahal izango dituzte 2009-2010 ikasturtea amaitu aurretik. Etengabeko Ikaskuntzaren Zuzendaritzak eskaera onartu ondoren, agindu hau argitaratu eta hurrengo hamabost egunetan egingo da matrikula, eta ebaluazio-saioak, 2009-2010 ikasturteko azken deialdietako ebaluazio-egunetan.

***Bigarrena.***– Agindu honetan 5. artikuluan ezarritako metatutako eskaintzako modalitateari buruz xedatutakoa ez da indarrean jarriko Lanbide Heziketako sistema berria Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen den arte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

2008ko ekainaren 3ko Agindua, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialeko modalitatean ematea arautzen duena, indargabetuta geratzen da.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Etengabeko Ikaskuntzaren Zuzendaritzari agindu honetan ezarritakoa garatzeko behar diren jarraibideak emateko baimena ematen zaio.

***Bigarrena.***– Agindu honetan prozeduraren arloan aurreikusi ez den guztian, azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, aplikatuko da.

***Hirugarrena.***– Agindu hau EHAAn argitaratzen den biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 22a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

fesionales ligados a unidad de competencia y el de Formación en Centros de Trabajo para desarrollarlos antes de la finalización del curso escolar 2009-2010. Previa aprobación de la solicitud por la Dirección de Aprendizaje Permanente, la matrícula se realizará en los quince días siguientes a la publicación de esta Orden y las sesiones de evaluación en las fechas de evaluación de las convocatorias finales del curso 2009-2010.

***Segunda.***– Todo lo dispuesto en la presente Orden en relación con la modalidad de oferta acumulativa establecida en el artículo 5 no entrará en vigor hasta que se implemente el Nuevo Sistema para la Formación Profesional en el País Vasco.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la Orden de 3 de junio de 2008, por la que se regula la impartición de ciclos formativos de Formación Profesional en la modalidad de oferta parcial.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Se autoriza a la Dirección de Aprendizaje Permanente a dictar las instrucciones necesarias para el desarrollo de lo establecido en la presente Orden.

***Segunda.***– En todo lo no previsto en materia de procedimiento por la presente Orden, será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Tercera.***– La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de marzo de 2010.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

# I. ERANSKINA / *ANEXO I*

## METATUTAKO EBALUAZIO PARTZIALA - AKTA
## *ACTA DE EVALUACIÓN PARCIAL ACUMULATIVA*

Metatutako Ebaluazio Partzialaren akta .................................................. 32/2008 Dekretua eta 2010___-___- Agindua. Ikasturtea: _____-_____, 1. orrialde
*Acta de Evaluación Parcial Acumulativa* ................................................ *Decreto 32/2008 y Orden ___-___-2010. Curso escolar _____-_____, Hoja n.º 1*

Ikastetxea: ...................................................................................... Herria: ....................................................... Lurraldea: .............................................
*Centro*: ........................................................................................... *Localidad*: .................................................. *Territorio*: ............................................

Heziketa-zikloa: ....................................................... Gradua: ..................................... Modulua: ...........................................................................................
*Ciclo formativo*: ....................................................... *Grado*: ...................................... *Módulo*: ...........................................................................................

| | | Modulua osatzen duten kredituak (*) / *Créditos que componen el módulo (*)* | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| | Kodea/*Codigo* | | | | | |
| Zk./*N.º* | Izen-abizenak / *Nombre y apellidos* | Kalifikazioa/*Calificación* | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | Eguna/*Fecha*:_______ Sinadura/*Firma* | Eguna/*Fecha*:_______ Sinadura/*Firma* | Eguna/*Fecha*:_______ Sinadura/*Firma* | Eguna/*Fecha*_______ Sinadura/*Firma* | Eguna/*Fecha*:_______ Sinadura/*Firma* |

(*) Kredituen izena / *Denominación de los créditos*:

1.- ........................................................................................................... 3.- ...........................................................................................................
2.- ........................................................................................................... 4.- ...........................................................................................................
5.- ...........................................................................................................

Irakasle/*Profesor* ________________________________________________

II. ERASKINA / *ANEXO II*

## AKTA OSAGARRIA - AMAIERAKO EBALUAZIOA (1.ETA 2. DEIALDIAK)
## *ACTA COMPLEMENTARIA - EVALUACIÓN FINAL (1.ª y 2.ª CONVOCATORIAS)*

Akta osagarria - Amaierako ebaluazioa _________ deialdia 32/2008 Dekretua eta ___-___-2010 Agindua. Ikasturtea: _____-_____; 1.or.
*Acta complementaria - Evaluación final ________ convocatoria D 32/2008 y O ___-___-2010. Curso escolar _____-_____; Hoja n.º 1*

Ikastetxea: .................................................. Herria: .................................................. Lurralde: ..................................................
*Centro*: .................................................. *Localidad*: .................................................. *Territorio*: ..................................................

Heziketa-zikloa: .................................................. Gradua: .................................................. Modulua: ..................................................
*Ciclo formativo:* .................................................. *Grado:* .................................................. *Módulo:* ..................................................

| | | Modulua osatzen duten kredituak (*) / *Créditos que componen el módulo (*)* | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| | Kodea/*Código* | | | | | |
| Zk./*N.º* | Izen-abizenak / *Nombre y apellidos* | Kalifikazioa/*Calificación* | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |

(*) Kredituen izenak / *Denominación de los créditos:*

1.- ..................................................
2.- ..................................................
3.- ..................................................
4.- ..................................................
5.- ..................................................

Irakasle/*Profesor* ____________________

Eguna/*Fecha*: ____________________

III. ERANSKINA / *ANEXO III*

KREDITUEN ZIURTAPENA / *CERTIFICACIÓN DE CRÉDITOS*
LANBIDE HEZIKETA / *FORMACIÓN PROFESIONAL*

Erregimena: Ofiziala - ___________ Ikasturteko metatutako eskaintza partziala.
*Régimen: Oficial - Oferta parcial acumulativa Curso escolar ___________.*

........................................................................................................................................... ikasleak ondorengo ikasketak egin ditu:
Maila: ......................................Zikloa: ...............................................Modulua: .......................................................
Modulua ez du amaitu, baina honako Kalifikazioak lortu ditu modulu hori osatzen duten kreditu batzuetan:

*El/La alumno/a ..........................................................................................................................................*
*sin haber concluido el módulo profesional ..................................................................................... del ciclo formativo ............................................... de grado .................................. ha obtenido en algunos de los créditos que lo integran las siguientes calificaciones:*

| Kredituak<br>*Créditos* | Lehenengo deialdia<br>*1.ª convocatoria* | Bigarren deialdia<br>*2.ª convocatoria* |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |

Ziurtapen hau 32/2008 Dekretuak adierazten dituen ondorio metagarrietarako eta 2010eko martxoaren 22ko Aginduak, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialeko modalitatean ematea arautzen duenak, adierazten duen egiaztapenerako egin da.

*Esta certificación se extiende a los efectos acumulativos que señala el Decreto 32/2008 y de reconocimiento que indica la Orden de 22 de marzo de 2010, por la que se regula la impartición, de ciclos formativos de Formación Profesional en la modalidad de oferta parcial*

.................eko .........................................................ren .............an
*a ............ de ......................................................... de .................*

Zuzendariaren O.I. — *V.º B.º El/La directora/a*

Ikastetxearen zigilua — *Sello del centro*

Idazkaria — *El/La Secretario/a*

IV. ERANSKINA / *ANEXO IV*

LANEKOAK EZ DIREN PRAKTIKALDIEN ZIURTAPENA / *CERTIFICACIÓN PRÁCTICAS NO LABORALES*
LANBIDE HEZIKETA / *FORMACIÓN PROFESIONAL*

.......................................................................jaunak/andreak, ............................ko lurraldeko .................................... (e)ko ...............................................................................................ko (ikastetxearen izena) zuzendariak

ZIURTATZEN DU

.................................................................................... ikasleak ............................ ordu egin dituela, ...................................... ......................................................................................................... ...............................................................................................ko lanbide-familiako profesionaltasun-ziurtagiriari dagozkion lanez kanpoko praktiketan

Egiaztapen hau 2010eko martxoaren 22ko Aginduak, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialeko modalitatean ematea arautzen duenak, adierazten dituen ondorioetarako egin da.

*D. /Dña. ............................................................................... director / directora del ........................................................ (nombre del centro) de la localidad de ..........................del Territorio de ................................*

*CERTIFICA*

*Que el/la alumno/a .............................................................. .................. ha realizado .............................. horas, como prácticas no laborales, correspondientes al certificado de profesionalidad .................................................................. .............................. de la familia profesional...................... .............................................................................................*

*Esta certificación se extiende a los efectos que señala la Orden de 22 de marzo de 2010, por la que se regula la impartición, de ciclos formativos de Formación Profesional en la modalidad de oferta parcial*

...............................................................n, ................ko ....................................ren .................an
*En .............................................................., a ............... de .................................... de ................*

(Ikastetxearen zigilua / *Sello del centro*)

Zuzendaria/*Director-a*
Sin./*Fdo.*:

..........................................................................................